

Judimendi auzoa motorrak berotzen ari da bere jai herrikoien atarian

Judimendiko Jai Batzordea
Judimendi, 2019ko ekainaren 12an

Judimendiko jai herrikoiak hasteko astebete eskas falta denean, bere auzokideek, txosnek eta auzoko jai batzordeak dena prest dute dagoeneko. Aurten lau egunez luzatuko dira: ostegunean hasi eta bere sutzar ospetsuekin amaituko dira ekainaren 23an, igandean, urteko egunik luzeena den Udako Solstizioarekin.

Hilabete luzeetako prestakuntza lanen ostean, dena prest dago datorren ostegunean, **ekainaren 20an**, Sefarad plazatik botako den txupinazoak **Judimendiko Jai**ei hasiera emateko.

Hala ere, igande honetatik aurrera **ekimen ezberdinak** izango dira, besteak beste: mus txapelketa, Gazte Aste Kulturala edo ARTgia sorgune & aretoak antolatutako ikuskizunak, asteartean izango den MICEren kontzertua edo Detritus Teatraren 'Levántate y Mea de Pie' antzerkia bezala.

Jaia eta auzoa, lau egunez

Berotzeko ariketa hauen ostean, ostegunean ofizialki abiatuko dira auzoko jaiak, askotariko ekimenekin. Gainera, egun horretan, arratsaldeko 20.00etan, txosnen ateak irekiko dira, jaietako lehen egunaz gozatzeko pintxo-potea eskeiniz. 22.00etan lehen kontzertuak izango dira, izan ere, **Revolta Permanent eta Ira Rap** taldeek eszenatokia estreinatuko dute.

Jaietako lau egunetan zehar oholza nagusian izango diren kontzertuetaz gain, auzoko taberna ugari ere animatu dira euren harri-koskorra ekartzera, eta Candela, Rey Louis, Kilkerra, Hirusta eta Santa Lucia **tabernek ere emanaldi ezberdinak** antolatu dituzte.

Bigarren eguna izango den **ostiralean, ekainaren 21ean**, txikien txanda izango da, **Umeen Eguna**, Ane Gebara ipuin kontalaria, gargantua, umeentzako zumba eta txokolatadarekin. Egun berean, urtero bezala, auzoko taldeak biltzen dituen **Judstock Festibala** ospatuko da: 18.00etan **Zoe**-k kontzertu akustikoa eskeiniko du SUMendi, eta beranduago, 21.30etik aurrera, sei talde igoko dira txosnaguneko oholtzara: **Esku-P, Trikina, Cerveza Suicida, EXK, Wannabana Banda eta Zuretzako Mezua kolektiboa**.

Asteburuarekin batera, **larunbatean, ekainaren 22an, Gazte Eguna** ospatuko da. Urtero bezala, ehunka gazte bilduko dira goiz-goizetik auzoko kaleetan zehar. Dena Sefarad plazako aldapan hasiko da, *Maldan behera Maldan gora* jolasekin; jarraian, tabernaz taberna ibiliko den poteo musikatua. Egunak gazte bazkari batekin jarraituko du eta arratsalde

osoan zehar ekimen ezberdinak izango dira. “Gauetan”, eguzkia oraindik zeruan egongo den arren, **Zzio, McOnak, Kaleko Urdangak eta The Rodeos** talde japoniarrak oholtza astinduko dute jaietako azkenaurreko gaua borobiltzeko.

Azkenik, urteko egunik luzeena den **ekainaren 23an, Udako Solstizioaren** hotsandiko ospakizuna iritsiko da, Judimendi auzoan ohikoa den bezala. Horretarako, goizeko 12.00etatik aurrera ekimenak egongo dira: swing, herri kirolak, tortilla txapelketa, txistorrada, fanfarreak, kontzertuak tabernetan, joaldunak, momotxorroak... Eta **ospe handiko Judimendiko Suak** jaietako azken gauari hasiera emango dio, **Tximeletaren berbena-maratoiaren** laguntzarekin.

Suaren txingarrak itzali direnean, eguzkia berriro irtengo da astelehena iritsi dela iragartzeko. Judimendiko Jaiak amaituko dira, baina auzokide askok hurrengo urteko jaietarako atzera kontua martxan jarrita izango dute dagoeneko.

Erasorik gabeko jaien alde

Urtero bezala, auzoko jaiak “**eraso sexista, homofobo, arrazista eta faxistarik gabeko espazio**” gisa sustatzeko deialdia egin du Judimendiko Jai Batzordeak.

Horregatik, bestelako neurrien artean, **eraso sexisten aurkako protokoloa** landu dute Gasteizko Mugimendu Feministarekin batera. **24 orduz erasoak salatzeke telefonoa egongo da (688 744 411)** eta autodefentsarako, erantzuteko eta salatzeke mekanismoak aktibatuko dituzte edozein motatako eraso ematekotan.

Jaiak bai, aldarrikapena ere bai

Aldarrikapen sozial eta politikoak ere paper garrantzitsua izango du. Izan ere, Judimendiko Jaiak urte osoan zehar antolatzen dituzten **auzoko herri mugimenduek** dinamika eta protesta propioak garatzeko beste espazio bat ere badira auzoko jaiak.

Urtero bezala, euren etxetatik ehunka kilometrotara sakabanatuta dauden **Judimendiko lau preso politikoaren eskubideak** aldarrikatuko dira: Xabier Agirre, Roberto Lebrero, Diego Ugarte eta duela gutxi espetxeratutako Aitor Zelaia. Ostiralean 20.30ean irekiko dira txosnak, ohikoa baino ordu erdi beranduago, Etxerat elkarteak preso eta iheslarien eskubideen alde eta sakabanaketaren kontra Andra Mari Zuriaren plazan deitutako kontzentrazioa abiatuko den kalejirarekin bat eginez.

Bestalde, **joko-areto eta apustu-etxeen kontra Gasteizen burutuko den lehen manifestazioa** deitu dute larunbatean; Olaguibel Joko-Aretoaren kontra, hain zuzen ere. Izan ere, Judimendin kokatuta dagoen joko-areto honek auzokideen gaitzespena eta bere kontrako mobilizazioa eragin du. **Judimendik Joko Aretoari Ez** dinamikak problematika hau landu du azken urteotan eta mobilizazio hau inflexio-puntu garrantzitsua izango da. **Jai Batzordeak** berak auzoko joko-areto honen kontrako **boikota** babestu du eta “**ez kontsumitzera**” deitu ere, “**ez jaietan, ez urte osoan zehar ere**”.

Taberna zein txosnetara **edalontzi berrerabilgarriekin** joateko deialdia ere egin du Jai Batzordeak, auzoa garbi mantentzen eta ingurugiroa zaintzen laguntzeko.

Jaietako Egitaraua

EKAINAK 16 igandea

16.30 - Mus txapelketa - Globo taberna

EKAINAK 16 igandea – EKAINAK 20 osteguna GAZTE ASTE KULTURALA

EKAINAK 18 asteartea

20.00 - Kontzertua - MICE - ARTgia

EKAINAK 19 asteazkena

20.30 - Antzerkia - *Levantate y mea de pie* - ARTgia

EKAINAK 20 osteguna - EKAINAK 24 igandea SALTZAILEEN POSTUAK PARKEAN

EKAINAK 20 osteguna JAIEN HASIERA

18.00 - Helduen afari-merienda - San Juan Elizako lokaletan

19.00 - Batukada: RK-tukada - Sefarad plazan

19.00 - Txupinazoa - Eszenatokian

20.00 - Txosnen irekiera + pintxopotea

20.00 - Kontzertua - Felix Newman *El Guateque* - Santa Lucia taberna

20.30 - Antzerkia - *Levantate y mea de pie* - ARTgia

22.00 - Kontzertuak - Sefarad plazan

- REVOLTA PERMANENT
- IRA RAP

**Egun osoan zehar prezio merkeak barraketan*

EKAINAK 21 ostirala

UMEEN EGUNA eta JUDSTOK

17.00 - Ipuin kontalaria - Ane Gebara - Parkean

17.45 - *Kilimaken* boletoen zozketa

18.00 - Gargantua - Parkean

18.00 - Umeentzako Zumba - Sefarad plaza

18.00 - Kontzertu akustikoa - Zoe - SUMendi

18.45 - Txokolatada - Parkean

- 20.00 - Dantza plaza - Sefarad Plaza
- 20.00 - Kontzertua - Hirusta taberna
- 20.30 - Antzerkia - *Levantate y mea de pie* - ARTgia
- 20.30 - Kontzertua - *Nok Daki* - Candela taberna
- 22.00 - Kontzertuak - Gunflow / Piara - Kilkerra taberna
- 21.30 - JUDSTOCK Kontzertuak - Sefarad plaza
 - ESKU-P
 - TRIKINA
 - CERVEZA SUICIDA
 - EXK
 - WANNABANA BANDA
 - ZURETZAKO MEZUA

EKAINAK 22 larunbata

GAZTE EGUNA

- 12.00 - Maldan behera Maldan gora jolasak + txistorrada - Sefarad plaza
- 12.00 - Txistulariak auzotik
- 13.00 - Mariatxiak - Santa Lucia taberna
- 13.30 - Poteo musikatua - Txosnetatik abiatuta
- 14.30 - G7 EZ argazki masiboa
- 15.00 - Gazte Bazkaria - Judimendiko eskolan
- 17.30 - Kafe eta kopa + sorpesa - SUmendi
- 18.30 - Zumba - Auzoa girotuz zumba ibiltaria - Sefarad plazatik
- 20.00 - Gazte ekitaldia - Sefarad plaza
- 20.30 - Antzerkia - *Levantate y mea de pie* - ARTgia
- 20.30 - Kontzertua - Sutja Gutierrez - Candela taberna
- 22.00 - Kontzertua - Tocan2 La Polla - Kilkerra taberna
- 22.00 - Jaietako boletoen afarien zozketa - Sefarad plazan
- 22.00 - Kontzertuak - Sefarad plazan
 - 2ZIO
 - THE RODEOS
 - MC ONAK
 - KALEKO URDANGAK
- + 5.00 - Takoi lasterketa - Sefarad plaza

EKAINAK 23 igandea

UDAKO SOLSTIZIOA

- 12.00 - Swing
- 12.30 - Herri kirolak - Parkean
- 12.30 - Tortilla txapelketa + txistorrada - Parkean
- 13.00 - Kontzertua - The Tacata's - Santa Lucia taberna
- 16.00 - SUmendi tropikala - SUmendi
- 18.00 - Fanfarrea - Adinduentzako zentro soziokulturaletik
- 19.00 - Manifestazioa - *Judimendik Joko aretoari EZ* - Sefarad plazatik

- 20.00 - Kontzertua - The Artichokes - Rey Louis taberna
- 20.30 - Antzerkia - *Levantate y mea de pie* - ARTgia
- 20.30 - Kontzertua - Los Nitxos - Candela taberna
- 20.30 - Kalejira - Joaldunak eta Momotxorroak - Sefarad plazatik
- 21.00 - Udako Solstizioa eta Jare dantza taldea - Sefarad plaza
- 22.00 - Judimendiko Udako Sua - Parkean
- 22.00 - Kontzertuak - Sefarad plaza
 - TXIMELETA

EKAINAK 24 astelehena

**Egun osoan zehar prezio merkeak barraketan*